

## IRAKURLEA IDAZLE

## EKBren Batzarre Nazionalaren aurrean

**M**ARTXOAREN 5ean egingo da EKB (Euskal Kultura Batzarre)k II. Batzarre Nazionala, Donostiako Zorroagan, Hori dela eta, zenbait argibide eta gogoeia batzuk azaltzeko une egokia izan daiteke.

Duela bost urte kaleratu zen EKB, euskal kulturako sail ezberdinetako talde, elkarte eta erakunde herritarren koordinakunde zabala eratzeko, Euskararen normalizatzarako plangintzaren herri-oinarri eta eragile gisa. Geroztik hainbat bider agertu izan ditu bere asmoa eta helburuak; eta euskararen eta euskal kulturaren alorreko hamaika ekintzaren bultzatzaile (edota antolatzaile) eran azaldu da EKBren izena.

Idazkaritza teknikoaren eta koordinazio-arduradunen eguneroko lanaz gain, zenbait lanbaldoretan oinarritzen da EKBren iharlumbide normala. **Nazio-Batzordea** da organo funtsezkoetako bat, koordinaturik dauden talde eta elkarte eta erakunde guztien ordezkariak osatua; horren irauunkortasuna **Batzorde Iraunkorrak** betetzen du. **Batzarre Nazionala**, EKBn koordinaturik dauden talde, elkarte eta erakunde guztietako lagunek osatzen dute.

## Lehen Batzarrea Eibarren eta Iruñean

Bere lehen Batzarre Nazionala 1984ko uztailean egin zuen EKBk, bi saiotan (Eibarren aurrean eta Iruñean, UEUren barruan, bigarrena).

Batzarre horretan euskararen egoera eta dinamika aztertu ziren, euskal kulturako sail bakoitzekoa eta orokorra. Era berean Euskararen normalizatzarako plangintza orokorra bideratzeko abiadurak eta helburuak definitu zituzten EKBk; azkenik EKBren beraren iharlumbidearen ardatzak zehaztu ziren.

Batzarrean abiatutako eta bideraturiko lanu

geroko hilabeteetan luzatu eta sakonduz joan zen; hainbat txostenetan gauzatu zen. Guzti horien laburpena 1985ean argitaratu zuen EKBk, JAKIN aldizkariaren 34. zenbakian, monografia gisa, eta «Euskararen Plangintzarako Oinarriak» tituluarekin.

## EKB, bidea irekitzen

«Ekin koordinazioaren bideari» izan da EKBk aurrean erabili izan duen sloganetako bat. Horretan dihardu orain arteko bost urteotan, euskararen berreskurapenerako eta plangintza orokorrerako behar-beharrezkotzat jotzen duelako.

Euskal Kulturako hainbat sailetan eraturik dago EKB: Irakaskuntza, Unibertsitatean, Komunikabideetan, Administrazio Publikoko itzultzaileen artean, Antzerki-sailean, Haldutik euskara irakasteko sailean, liburu eta diska-gintzan. EKBn koordinaturik daude, bestealde, euskal kulturako talde eta elkarte ugari: UEU, GLE, EATB, EHE, Jakin, Argia, AEK, etab. Beste hainbat elkarte eta erakundeekin elkarrekin oso aurreratuak daude, koordinazioa zabaltzeko asmoz. Iparraldean ere EKBren asmoa gorpuzteko urrats zenbait emana dago.

Kultur sail bakoitzeko koordinazioan oinarritzen da EKB, eta sail horietako talde eta elkartearen arteko batzarre zabala izan nahi du, Euskal Herri osokoa. Baina kultur sailetakoa EKBekin batera, herrietako EKBk osatzen dute Batzarrea. Alde honetatik oso garrantzizkoak dira hainbat herri eta auzotan eratutako EKBk, bertako euskararen normalizatzarako plangintzari eta ekintzari begira bereziki.

Koordinazioa ez da, hala ere, azken helburua. Horretara iristeko bidea eta iharluteko forma da. Hainbat zerbitzutan oinarritzen da koordinazioa: horien artean aipatzekoa da Euskarari eta euskal kulturari buruzko doku-

mentazio eta informazio-zentrua, eta zabaltzen hasia den «Prensa Dokumentazio Zerbitzua». Kultur sailen eta elkarte ezberdinen arteko hainbat ekintzetan konkretatzen da, bestealde, EKBren koordinazioa: Antolatu izan duen Euskararen Egun Nazionalaz gain, une honetan erabat garrantzi handikotzat jo behar dugu datozen bi hilabeteotan Ikastolen Kontzertazioarekin batera aurrera eramango duen kanpaina zabala, «Bateginik» izenpean.

## II. Batzarre Nazionala

«Bateginik» kanpainaren bi hilabeteko arkuaren barruan eratu eta gauzatuko da, hain zuzen, EKBren bigarren batzarrea: martxoaren 5ean abiatu eta maiatzean egingo den beste bilera zabalean burutuko da.

Ekintzaldi eta eraketaren testuinguru eta dinamika horren barruan EKBren Batzarre «iraunkorraren» lana lau kapitulu nagusi hauek dira:

1) Euskararen normalizatzaren bultzatzea, azken hamar urtetako bidearen eta ahalguztaren ondoren: Euskal Herri mailan, kultur eta gizarte-sail bakoitzean eta herri bakoitzeko egoerari begira da egiteko atzerketa.

2) Herri-dinamikaren funtzioa euskarari: berreskurapen eta euskal kulturaren berpizkundean, eta haren eraketaren garrantzi eta forma.

3) EKBren aurrerabidea: bost urtetako bultzatzea; abiaburuak eta helburuak sakontzea. EKB sektorialak eta lokalak zabaltzea; berraketa zehaztea eta bizkortzea; erakunde otziazaleko eta bestelako erakunde kultural eta sozialekiko harremanak argitzea eta areagotzea; koordinazio-zerbitzuak indartzea; nazioarteko harremanak bideratu eta gauzaltzea.

4) Datozen hamar urtetarako EKBren «strategia», euskararen normalizatzarako plu-

gintzari eta euskal kulturaren berpizkundeari begira.

Azken kapitulu honengatik da garrantzi berezia EKBren II. Batzarreak; baina estrategia horri begira, hain zuzen, beste puntuak ere (egituraketarena eta funtzionamendua, harremanena, etab.) zorrozkiz aztertzeokoa eta erabakitzeokoa dira.

Proiektu irekia delako eta eratzeko prozesu zabalean dagoelako EKB bera, Batzarre hau ere oso irekia eta zabala izango da; horregatik, bertan koordinaturik dauden talde, elkarte eta erakunde guztiek batera, beste hainbat lagunek eta elkarte hartuko du parte horretan.

Paulo Agirrehaltzageti

EKB